



[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

533. zkia.

XIII. urtea

2005eko ekainaren 10a

Arnaldo Otegi

**«Ez dut ulertzen bizitza
konpromisorik gabe»**

SÍO...
BAI?

2005eko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza:

- EGA azterketa prestatzeko ikastaro berezia
 - Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
 - 5 ordu goizean
- Euskalduntze maila guztiak.
 - Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
 - 5 ordu goizean

Matrikula epea: Ekainaren 1etik 24ra

Prezioa: 121 euro

Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 72,50 euro

Erantzuna Udal Euskaltegien

La respuesta en Udal Euskaltegiak



23 urte / 43 zentro /
Todos los niveles /
Horarios personalizados / Bekak /
HABEko diplomak...



www.udaleuskaltegiak.net

DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea

Nafarroa Eparantza 2 • ELGOIBAR • Tel.: 943 74 27 31 • elgol.euskal@udal.gipuzkoa.net
Luardo Etxea, Sabanika jaitsiera 4 • MUTRIKU • Tel.: 943 60 30 94 • eusk.mutriku@udal.gipuzkoa.net
Iifar-kalea, 12 • DEBA • Tel.: 943 19 22 36 • euskaltegi@deba.net

ASTE BERDEA '05



Deba ibaiia ezagutu

Uztailak 3

Parte hartu eta lagun gaitzazu Deba ibaiia aztertzen. Golza baino ez duzu behar izango. Ezagutu ezazu ibaiaren flora eta fauna (urkiak, haltzak, zozoak, txanxangorriak...) eta ikas ezazu gure ibaiaren ingurumen-egoera aintzat hartzen. Horretarako irteera gidarua egingo da eta Kilimon, Sagar-Erreka, San Lorenzo, estuarioa, eta abar ezagutzeko gonbit egiten dizugu.

Izena emateko azken eguna ekainaren 23a izango da.

Irteerak uztailaren 3an, igandea, izango dira. NAHITAEZKOA DA IZENA EMATEA.

Izena emateko **kupola** 7 orrialdean aurkitu dezakezu.

INFORMAZIOA

Tel.: 943 820110 • e-mail: agenda21@debabesa.com





AMAIA GORROTATEGI



AINHOA MENDIBIL

ZOZOAK BELEARI...

Bazen behin hamalau urteko Amaia bat.

Ez zen oinez ibiltzen, hegan egiten zuen; buruan zeuzkan txori guztiek lurretik altxatzen baitzuten. Horregatik mundua beste perspektiba batetik ikusten zuen, lainoetatik.

Ez, ez da ipuin bat.

Batere urruti geratzen ez zaidan errealitate bat da.

Fernando Morilloren hitzetan irakurri dut orain gutxi nerabegarotik ateratzen ari garenean, zahartzen ari garen heinean, amets egiteko gaitasuna ere herdoildu egiten dela.

Ainhoa, konturatu al zara amak gehienetan arrazoia izaten duela??

Ni "superpop" irakurtzeari laga eta egunkaria irakurtzen hasi nintzenean konturatu nintzen; musikak biniloan asko irabazten zuela konturatu nintzenean; hau da, orain dela nahiko gutxi.

Ba al dakizu orain ez dudala "popstar" bat izan nahi? Eta azken aldian gabez bakarrik egiten dudala amets??

Gero eta nagusiago izan, gero eta umeago sentitzen naiz. Arraroa, ezta??

Egia esan, ez dakit zehazki zer gertatzen zaidan, baina suma dezaket.

Ai ama Ainhoa, herdoiltzen hasi ote naiz??

«Azken aldian
gabez bakarrik
egiten dut
amets»

AMAIA

«Orain ohartu
naiz erdi
herdoilduta
zaudela»

AINHOA

Bai Amaia!!! Herdoiltzen ari zara, ia guztiz herdoildu zara.

Egia da amak gehienetan arrazoia duela. (Ama, hau zuk ez irakurri!!)

"Superpop" horren kontuari... uste dut, nik sekula ez dudala halakorik erosi, baina batek jakin! Eta bai, egunkaria erosten dut egunero. Goizean goiz.

Musika ez dut biniloan entzuten tamalez, baina gustuak aldatzen ari zaizkit, hori bai.

Eta "popstar" bat?? Ez, hori ere ez dut amets izan orainartean. Baina hurrengo diozunak harritu nau gehiago Amaia.

Gabez soilik egiten duzula amets?? Hemen ohartu naiz jada erdi herdoilduta zaudela. Ez al daukazu bakarrik geratzen zaren unerik? Lagunekin ezinezkoetaz berrikerian emateko arratsalde hutsik? Ez al duzu amasarik hartzen egunez? Ez al duzu kalea batetik bestera igarotzeko astirik? Txoko bakoitzean amets bat daukazu zure zain, Amaia. Barruan sartuko zaizkizu, garbitu egingo zaituzte; herdoila kendu eta indarberitu.

Eta orduan, berriz ere... Ez zen oinez ibiltzen, hegan egiten zuen; buruan zeuzkan txori guztiek lurretik altxatzen baitzuten". Mundua lainoetatik ikusiko duzu berriro. Hori bai, oraingoan lainoek ez dute larrosa usainik izango.

Patxo!



EZ ZARA HAZIKO ETA GARATUKO
ERANTZUNAK GALDERAK BAINO LEHEN EZAGUTZEN BADITUZU



Wayne W. Dyer

Ongarri zorionduz

Gaur egunean, ohituta gaude kexuak eta ezadostasunak daudenean bakarrik idaztera, eta ohitura txar horren kontra egin nahi dut nik: Ongarri zine kluba zoriondu nahi dut, aurten ere (eta badira zenbait urte!) lan ederra egin dutelako. Eskaintza benetan erakargarria egin dute aurten ere. Urruneko lekuetara bidaiatu ezin dugunok zinemaren bitartez bidaiatu ahal izan dugu mundu osoan zeharreko paraje eta paisanajeetara. Nik primeran pasatu dut. Eskerrik asko.

JESUS MARI MAKAZAGA

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZALEA Jaione Unanue KOLABORATZAIKAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Garosiza, Amaia Garrotegati, Imanol Larrataga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurutzaga, Iban Urizar Kokoa KE, Umuzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gatzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Getxo Koop. E. TIRADA 4.300 ale LESE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK



- Guraso batek ondorengo kexa azaldu digu: "8 urtetik gorako umeei ez diete herriko parkeetan jolasten uzten, eta hori ez dago onartzerik. Nire alabak 9 urte ditu, eta oraindik umea da, parkean jolasteko adina dauka, baina Elgoibarko parkeetan ezin du jolastu, 8 urtera arteko muga jarri dutelako. Nola da posible? Denbora pilo bat egon gara parkerik gabe, eta orain parkeak dauzkagunean, ezin du bertan jolastu. Gainera, ume txikiagoen gurasoak dira 9 urteko umeak parketik bidaltzen dituztenak. Hori ez da bidezkoa. Gauzak hobeto pentsatu behar dira egin aurretik, eta bestela, 8 urtetik gorakoentzat beste jolastoki batzuk jartzea eskatuko nuke, oraindik umeak dira-eta".

- Herritar batek esan digunez, jende askok txakurrak solte eramaten ditu kalean, eta gainera lotzeko eskatzen badiezu batzuk haserretu egiten dira. "Joan zen astean gizon batek Ermuaranbide kalean zehar txakurra solte zeraman, eta mesedez lotzeko eskatu nionean irainka hasi zitzaidan, errespetu guztia galduz. Eskertuko nuke herri barruan behintzat txakurrak lotuta eramatea, ezbeharrik ez gertatzeko".



TXALOAK

- Herritar batek **Morkaiko Mendizale Elkartea txalotu nahi du Finalista Egunean oso ondo pasatu zutelako**: "Urtero bezala, oso ondo pasatu genuen igandean San Pedron. Umeek eta gurasook izugarri disfrutatu genuen. Eguraldi bikaina egin zigun eta giro oso onean igaro genuen eguna. Aurrerantzean ere, segi fin-fin horrelako gauzak antolatzen neska-mutilak!".



- Herriko kultur zaletu batek **Eskuz Taldea txalotu nahi du**, Kultur Etxean egin duten erakusketa oso interesgarria izan delako: "Gustura ikusi nuen Eskuz Taldeak antolatutako erakusketa. Politia eta aldi berean oso interesgarria iruditu zitzaidan. Elgoibar bezalako herri batean honelako taldeak egotea oso positiboa begitantzen zait".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Tel: 943 74 10 11

- 📍 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 📍 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 📍 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Batoz informazio eske!



URRUZUNOREN Luma

Tropela

Abiadura Haundiko Trenaren garaikoa izanik, abiadura bizkorrean bizi behararen baldintzapean hezitua izan zen. Erlojua, egutegia eta agenda ziren bere eguneroko menuaren osagarriak. Behin baino gehiagotan ahalegindu zen bere bizimodu azkarraren abiapuntua, lasterketaren hasiera lokalizatzen bere oroimenean; nahi eta ezin. Ezin zehaztu eta ezin geratu, beti martxan, lasterketan, astelehenetik ostiralera, larunbatetik igandera, eritmo berdinean, tropelean, munduaren hiru erdi laurdenarekin batera, ezertan pentsatzeko astirik gabe, amasa barru barrutik hartu eta bere burua aztertzeke betarik gabe; horrelaxe zihoan, lasterka, bat batean, norbaitek, egun batean, begiak estali, besotik tinko heldu eta bide hertzera eraman zuen arte... Tropelak aurrera jarraitu zuen, inork ezer ikusi ez balu bezala, hotzak, apatikoak... Eta minutoak pasa ziren, orduak, egunak, asteak, hilabeteak... Ezezaguna ezagun eta lagun egiteraino, bihotza lapurtzeraino. Egunero eskertzen dio maite duen ezagun lagunari, abiadura haundiko tren hartatik askatu izana, izan ere, eta orain badaki, bizitzaren koloreak, usainak eta doinuak, erlojutik kanpo daudela, egutegitik at.

Eguzkiñe Aranberri

[ZORTZIKO TXIKIAN]



NAIARA MARTIN

ATXUTXIAMAIIKAKO
BEGIRALEA

Mutila izango
bazina...

• Ze neska litzateke idea-
la?

Neska jator bat.

• Fidela izango zinateke?

Ahhh...

• Zein afizio izango zenuke?

Igeriketa.

• Zure gorputzeko zein atal gustatuko litzazuke?

Besoak.

• Zerk izango luke lehentasuna zure bizitzan?

Nere kotxeak.

• Eta lanbidez?

Atxutxiko begiralea (mutilak falta dira).

• Seme-alabak izango zenituzke? Zenbat?

Bai, 3 neska.

• Metrosexuala izango al zinateke?

Ez.

• Nola erakarriko zenuke emakume bat?

AXE erabiliz.

• Zein izango litzateke zure defekturik txarrena?

Azazkalak jatea.

• Eta bertuterik onena?

Neskak ulertzea.

komikia



Kokoe 021

[AKORDATZEN NAIZ]



FELISA BERGARETXE

1915an jaioa

«Ezteixak»

Ni oso berandu ezkondu nitzan. Nere mutil-laguna 6 urtez egon zan espetxeratuta, eta beste hiru desterrauta. Nik itxoin egin nion. 34 urte nittuala ezkondu nitzan, 1950 urtian. Itziarren ezkondu, eta eztei-bidaia logroñora egin gendun. Han egon zan desterrauta nere mutila kartzelatik erten ostian, eta han ezagututako jendia bisitatzeraz juañ giñan. Jende oso ona ezagutu gendun han; Ausejo herrixan egon giñan.

Sasai haretako ezkontzak ez ziran gaur egunguak bezelakuak. Nik, gaiñera, ez naban eztei haundirik

nahi. Elizan ezkondu giñan, baiña historixa haundiegirik gabe; boda umilla izan zan.

Nere mutila emuarra zan, baiña oso euskalduna, sangre vasca esaten ziuen. Euskadi zan berarentzat lehenengua, iñor diskriminatu gabe, baiña garrantzitsuen Euskadi. Ez zaukan arerixorik, dana zaukan emateko, eta daneri laguntzekua zan. Okiña zan, eta berak jan bihar zabana ere eman egitten zaban. Nere albia jaixo zanian, senarrak okin lana laga egin zaban, eta bixok hasi giñan dendan lanian.

«Nere mutil-laguna 6 urtez egon zan espetxeratuta»

[GURE BERBAK]

Konparazio indargarririk (2)

Gaurkuan ere konparazio adierazgaririk ekarri ditut. Asmatu egin bihar dozu zer adjetibo falta dan:

1. *Inpemuko diabrua baiño (--) dok gure Mikel!*
2. *Txorixak baiño (--) dauka neska horrek.*
3. *Urria baiño (--) da nire albia.*
4. *Artaburua baiño (--) dauka gizon horrek!*
5. *Astua aza artian baiño (--) gozatu dot gaurko jaialdixan.*
6. *Garzumia baiño (--) da emakume hori.*
7. *Etok ezer gastatzen: soroko zokorra baiño (--) dok.*
8. *Telarik gabeko guardasolak baiño (--) dauka agure horrek.*

A) *fiñagua*; B) *buru gitxixago*; C) *gaiztuagua*;
D) *luziagua*; E) *buru haundixago*;
F) *gehixago*; G) *sikuagua*; H) *okela gitxixago*

Jesus Mari Makazaga

EBAZPENAK: 1-C; 2-B; 3-A; 4-E; 5-F; 6-D; 7-G; 8-H

eteo
ETEO, KOOP. L.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

ESKAINITAKO TITULUAK

IDAZKARITZA
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
APLIKAZIO INFORMATIKOEN GARAPENA
NAZIOARTEKO MERKATARITZA
MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINA

Irekita izena aurrez emateko epea

AUTOBUS LINEA BERRIA (2 ibilbide):
+ Arpeñia-Azkañeta-Elgoibar-Elbar-Oñati
+ Zornetza-Durango-Elorrio-Oñati

BISITATU GURE WEBGUNEAK!

Larrañeta auzoa, 16 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 71 80 09 Fax: 943 71 81 62
Informacion@eteo.mondragon.edu • www.eteo.mondragon.edu

ASTE BERDEA '05

1 2 3 4 5 6 7 8

ekaina

"Ezagura zure ibala" programan izena emateko, bete ezazu honetan besterik ez dardzun kupaia, eta eraman ezazu udalera, edo deitu 943 829 110 telefonera edo e-posta idazki helbide honetara: agendaz@debegea.com. Harremanetan jarriko gara zurekin.

Izena _____

Abizenak _____

Helbidea _____ Telefonoa _____

Posta Kutxa _____ Herria _____

ARNALDO OTEGI BATASUNAKO BOZERAMAILEA

«Gogorrena alabari hau dena esplikatzea da»

45 urteko gizon lasaia da Arnaldo Otegi. Lasaia eta hitz oparokoa, nabarmena da ohitua dagoela berba egitera eta galdera boia bezain pronto, di-da batean luzatzen du erantzuna. Lagunekin ere politikaz aritzen dela aitortu digu eta geuk egindako galdera personalak ere politikaren inguruan borobildu ditu gehienetan. Batasuna alderdiko bozeramailea, Madrilgo Audientzia Nazionalak ETako kide izateagatik epaituko du.



👤 **Zer moduz zaude, Arnaldo?**

Ondo sentitzen naiz. Ezker abertzalean gaudenok badakigu arrisku plus bat daukagula Audientzia Nazionalaren eta epaileen partetik. Banekien parlamentarioa izateari uzten nionean Audientzia nazionaletik pasako nintzela. Egia esan, kartzelaratzea sorpresaz hartu genuen, baina nire prebisio mentaletan bazegoen.

Hor min handiena ematen duena familia da, alaba. Azkenean, familia eta lagun guztiak ere bihurtzen dituzu militante.

👤 **Zein unetan konturatu zinen gauzak okertzen ari zirela?**

Audientzian, usain txarra hartu nien galderei eta sumatu genuen ez zela ezer onik aterako. Sinbolo bat nahi zuten kartzelaratu, argazki bat nahi zuten, eta argazki horren bidez mezu bat luzatu diote ezker abertzaleari.

👤 **Nolakoa da kartzela?**

Oso grisa da, baina jendeak kolorea jartzen dio. Ni hirugarren aldiz sartu naiz eta ezagutzen ditut etxe horiek. Ez daukat arazorik jendearekin harremanetan jartzeko. Lagunek esaten didate nahiko "talegeroa" naizela. Kartzela gizon emakumeek eraikitako horma puta bat besterik ez da.

👤 **Zer ikusten da kartzelatik?**

Ni isolamenduan egon nintzen eta han sare bat dago, suposatzen dut ihes ez egiteko izango dela, eta sare horretatik zerua ikusten da, hormak, funtzionarioak ikusten dira eta, batzuetan, lagunak ere bai.

👤 **Nola hartu zintuzten kartzelan?**

Ondo, errespetuarekin, baina ez giza-errespetuarekin. Mundu honetan badirudi telebistan agertzen bazara oso errespetatua zarela, beldurra sartzen du, badirudi boteretsua zarela.

👤 **Beldurrik pasa al duzu?**

Ez, bat ere ez. Isolamenduan preso sozial borrokalarrienak daude eta hauek ere nolabaiteko borroka mantentzen dute kartzelarekiko. Gu beti konpondu izan gara ondo horiekin, kartzela barruan beraien borroka eta gurea oso antzekoak dira. Aukera izan nuen lagunak ere egiteko. Leihotik leihora hitz egin daiteke.

👤 **Eta zertaz hitz egiten da bertan?**

Sozialen artean asko hitz egiten da bakoitzaren kondenari buruz. Eta telebistan ikusten diren saio eta txotxolokerien inguruan demaseko eztabaidak sortzen dira. Duela 12 urte ezagutu nuen isolamenduan ez zegoen telebistarik, baina orain egun osoa ematen dute telebista ikusten.

👤 **Lorik egin al zenuen?**

Bai, eta ondo gainera. Nik leku guztietan egiten dut lo, ez daukat arazorik.

👤 **Espero al zenuen hain azkar ateratzea?**

Kartzelan badago esaera bat dioena badakizula noiz sartzen zaren baina ez noiz aterako zaren. Altuenez, aste bat edo 15 egun pasatzea espero nuen. Prestatuta nengoan kirola egiten hasteko eta...

👤 **Kirolaria al zara?**

Orain gutxi egiten dut, bizikleta estatikoa batzuetan, baina kartzelan asko egin izan dut, ez duzu beste egitekorik-eta.

👤 **Nola eragin dizu zuri honek?**

Nik uste dut berriz etorri garela, zoritxarrez, errealtatearen printzipiora. 12 urte dira atera nintzela kartzelatik eta berriro ere ikusi dut batzuk badutela boterea norbaiten bizitza puskatzeko eta berriz ere noria gaizto horretan sartzeko.

👤 **Izan al du zerbait onik?**

Egoera zein den ikusarazi digu eta zeuden espektatibak piska bat jaitsi ditu. Baina hori ez da txarra. Uste dut bake espektatibak oraindik badaudela, baina bere tamainara etorri dira. Pertsonalki balio izan dit ikusteko kartzelan duintasuna badagoela. Nire galerian bazeuden madrildarrak, andaluzak, alikantino bat eta arabiarak, eta hango eztabaida batzuk parlamentuan izaten direnek baino maila intelektual handiagoa zuten.

👤 **Familia aipatu duzu lehen. Nola bizi du hau guztia alabak.**

Badaki ama eta aita kartzelan egon zirela eta, adibidez, oso gaizki pasatu zuen Juan Mari Mendizabal kartzelara eramane zutenean, ze haren iloba laguna du eta ez zuen ulertzen. Orduetik kartzelarena gertutik bizi du eta beti izan du intuizioa ni ere agian eramango nindutela. Nik esan nion kartzelara nindoala eta oso gaizki hartu zuen baina gero azkenean bi egun bakarrik izan dira. Esplikatu egin behar zaio zer gertatzen den, zergatik sartzen gaituzten... Gogorrena hori da.

👤 **Eta merezi al du?**

Nik ez daukat zalantzarik. Ez dut ulertzen bizitza hau konpromisorik gabe, ez

dut ulertzen bizitza honetatik besterik gabe pasatzea. Badira gauza pila bat egiteko herri honetan jende xumearengatik eta justiziagatik, eta badakigu hori ordaindu egiten dela. Prest gaude eta uste dugu bide onetik goazela eta aukerak daudela.

👤 **Txikitari zer izan nahi zenuen?**

Medikua.

👤 **Kasualitateak politikara bultzatu zintuen, beraz.**

Ez dakit kasualitatea izan zen. Egia da ni bozeramaile jari nindutela HBko Mahai Nazionala kartzelaratu zutenean, baina uste dut ezker abertzalean gaudenok bilatu egin dugula hau. Batzuetan nik ere pentsatu izan dut Suizan edo jaio izan banintz nire bizitza lasaiagoa edo apalagoa izango zela, baina, hala ere, ez naiz damutzen. Egia da kosta egiten zaigula jende asko konbentzitzea gure borrokan badagoela alde oso alai bat, umorea ez dugula galtzen, ez gara gehiegi konplikatzen eta bizitza datorren bezala hartzen dugula.

👤 **Azken boladan aro berri baten atarian gaudela esan izan da.**

Konbentzituta nago atzera biderik ez duen zerbait datorrela. Baldintza guztiak jarrita daude: mundu guztiak badaki oraingo markotik ezin dela aurrera egin eta ezker abertzaleak alde horretatik asmatu du. Momentu honetan aldaketa hori nolakoa izan behar den da borroka. Irabazi dugu baita ere beste gauza batean eta da herriari ere galdetu egin behar zaiola zer nahi duen. Bi faktore horiekin mahai baten bueltan eseri behar gara hitz egiteko. PSOEngan konfiantza gehiegi ez dugu baina egin ditu gauza batzuk nahiko onak. Ni baikor nago.

HAMARREKO TXIKIAN

1. Txillarre baserriko sukalde...

Sukalde ona baina prentsan gehiegi atera dena. Sua piztuta dago, ez Txillarren, baina Euskal Herrian baserri asko dago.

2. Nahiago nuen Arzalluz...

Josu Jon baino, fijo!

3. Madriletik ez da Euskal Herria ikusten...

Ez nago ados, doblegatutaz ezinezko herria bezala ikusten dute eta Espainiaren proiektua zalantzan jartzen duena.

4. Uztailaren 7an San Ferminak...

Eta 6an nire urtebetetzea!

Aspaldi ez naiz joan baina gomendatzen ditut, oso festa askeak dira.

5. Denon Errealita...

Penagarria da Errealean gertatzen ari dena. Askok sufritzen dut futbolarekin.

6. Gerry Adams euskalduna naiz...

Onerako eta txarrerako erabiltzen da baina nik asko estimatzen dut eta kriston lana ari da egiten.

7. Euskal Herriko Historian agertuko naiz...

Ez dakit nahiko nukeen, baina izan naizen bezalakoa agertzen banaiz, kontent.

8. Entzuten dudana musika...

Aspaldian "a sako" Estoparena, zalea naiz, eurak ere "talegeroak" direla ematen dutelako, badakit arraro xamarra dela baina.

9. Su etena...

Hurrengo su etena nahi baino beranduago etorriko da hain zuzen bermeak egon behar direlako atzera biderik gabekoa izango dela, hau da, ez dela hautsiko.

10. Oheratu aurretik...

Alabari musu bat eman, lotan egoten bada ere.

«Gure
borrokan ere
badago alde
oso alai bat»



[PROTAGONISTA]



Jasone Osoro

Jasone Osoro kazetari eta idazle elgoibartarrak "Jara bikiak eta bikoteak" liburua aurkeztu zuen atzo, ekainak 9, Bilboko Liburu Azokan. Jara izeneko 13 urteko neska baten istorioak kontatzen ditu: lagunak, maitasuna, gurasoak, ikasketak... Adin horretako jendeak bizi dituen abenturak, gutxi gora behera. Tentazioak, Korapiloak eta Gretaren egilearen 7. liburua da honakoa eta Zubia-Alfagurak kaleratu du. "Jara" liburuaren jarraipena da, eta Jasonek berak kontatu digunez, 11 urtetik aurrerako nerabeentzat liburu bilduma bat egitea da asmoa.

[NOTIZIA]

20 urte pasa kartzelan eman ostean etxean da Inazio Iriondo

Ekainaren 7an, asteartean, itzuli zen etxera Inazio Iriondo 20 urte pasa kartzelan egin ostean. Herritarrek ongi-etorri hunkigarria egin zioten Plaza Handian, eta berak eskerrak eman zizkien bertara gerturatu ziren guztiei.

20 urte kartzelan

lazko azaroaren 27an bete zituen Inazio Iriondok 20 urte kartzelan. 1984. urtean espetxeratu zuten 28 urte zituela. 30 urteko kartzela zigorra ezari zioten, beraz, 1999an bete zituen zigorraren 3/4ak. Legearen arabera, aske utzi behar zuten, baina sei urte gehiago pasatu ditu euskal preso politiko elgoibartarrak kartzelan. 20 urte luze hauetan Inazio Iriondok Estatu Espainiarreko espetxe desberdinak



ezagutu ditu: 1984ko abenduaren 7an Carabanchelen espetxeratu zuten. Gerora, Alcalara eraman zuten 1985eko urtarrilera arte. 1988ko azarora arte Herreran egon zen, eta 2000. urteko maiatzetik Cáceres II espetxean egon da, etxetik 600 kilometroira.

[ZENBAKIA]

109.576

Elgoibarko Udalak 109.576 euro inbertituko ditu Gaztetxe berriko obrak egiteko. Lokalak 389m² ditu erabilgarriak eta, besteak beste,

kontzertuetarako gela bat, eszenatokia, entsaioetarako gela, taberna, ekintza desberdinetarako gela, bulegoa, hiru komun eta bost biltegi txiki izango ditu.

asteko [ARGAZKIA]



Astelehen eguerdian ateratako argazkia dugu hau. Ikusten den bezala, San Pedrora bidean sutea egon zen. Eguerdiko 14:00ak aldera hasi zen sua, eta arratsaldeko 19:00ak aldera arte egon ziren Eibarko suhiltzaileak ura botatzen. Bero egiten zuenez, ur asko bota behar izan zuten dena ondo itzaltzeko. Foru Aldundiko Ingurumen Departamentutik esan digutenez, sua bide ertzean hasi zen, ez dakite nola, eta pinudian gora zabaldu zen. Hektarea eta erdi erre zen guztira.

Azokako merkatariek 7.980 euroko kalte-ordaina eskatu diote Udalari



[MOTZ-MOTZIAN]

Udaleko webgunetik tramiteak egiteko aukera

Interneti esker, elgoibarrak udal-administratziotik gertuago egongo dira. Izan ere, Elgoibarko Udalarekin zerikusia duten 30 tramite baino gehiago egin daitezke, www.elgoibar.org helbidean. Kultura, Euskara, Hazienda, Udaltzaingoa, Idazkari-tza, Hirigintza eta Gizarte Ongizate Sailek hainbat agiri jarri dituzte webgunean, herritarrei Internet bidez zuzenean eskura daitezkeen hainbat zerbitzu eskaintzeko asmotan. "Deba Digitala" izeneko proiektuaren emaitza da hau.

Montse Arregi Bai ala Ez lehiaketako irabazlea

Hilabete honetan Montse Arregi izan da BARREneko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Montsek, berak nahi duen lagunarekin Gabi jattetxean afaltzeko aukera izango du. Datorren hilabetean Kresala Talaso-Hotelean bi laguntzako zirkuitoa zozketatuko da. Parte hartzeko 7744 zenbakira SMS bat bidali behar da astero BARREn kaleratzen den galderari bai ala ez erantzunez.



IMSERSOren Opor Programarako eskaerak

Udaletxeko Ongizate Sailak jakinarazi duenez, IMSERSOko Nagusientzat Oporren Programaren eskaera orriak aurkezteko epea zabalik dago datorren ekainaren 30era arte. Interesatuek Udaletxeko Ongizate Sailean edo Jubilatuen Etxean jaso ditzakete eskaera orriak.

Ostegunetako azokako merkatariek kalte-ordainaren eskaera orriak betetzen ari dira ondoren udaletxean aurkezteko. Merkatarri bakoitzak 7.980 euroko kalte-ordainak eskatzen ditu. 38 aste daramatzate lanik egin gabe, eta 210 euro eskatzen dituzte aste bakoitzeko. Beraien esanetan, "Udalak Sigmako aparkalekuan obrak egin behar ditu, beraz, onartu egin du ez dela azoka jartzeko toki egokia. 2004ko irailaren 2tik toki desegokia da Sigma. 9 hilabete daramatzagu lanik egin ezinda, Udalaren burugogorkegiatik".

Trenbide kalea

Azokako merkatarien esanetan, Udalak berriro ere huts egin du leku aukeraketan, izan ere, Trenbide kaleak ez baititu legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak betetzen. Bestalde, Udalaren jarrera salatu nahi dute, azoka Plaza Handian jartzan saiatu diren bi ostegunetan Ertzaintzaren presentziarekin herritarrak beldurtu nahi izan dituelako. Era berean, elgoibartar guztiak eskertu nahi dituzte, behin eta beriz beraien babesa eskaini dietelako, eta Udalari argi eta garbi adierazi diotelako azokaren leku aldaketarik ez dutela nahi.

Bi urteko kartzela zigorra Elgoibarko taxista batentzako



Fiskalak bi urteko kartzela zigorra eskatu du Elgoibarko taxista batentzat, haurdun zegoen emakume brasildar bat sexualki behartzeagatik. Gertakariak Elgoibartik Mendarorako bidean gertatu zirela azaldu zuen emakumeak. Autoaren aurreko aldean eseri zela, eta taxistak ikutu desberdinak egin zizkiola adierazi zuen. Taxistak, bestalde, ez zela horrelakorik gertatu esan zuen, haurdun dauden emakumeei autoaren atzeko aldean jartzeko gomendatzen diela gaineratuz. Taxistak kasu honetan errugabea zela aitortu zuen, baina beste batzuetan horrelako jarrera izan duela onartu zuen.



IRAKASLEARI azterketa

LH. 3. mailako irakaslea

AMAIA INURRIETA



- 1 **Ikasle fina ala traketsa izan zinen?**
Oso fina. Asko larritzen nintzen, baina fin-fina nintzen.
- 2 **Gurasoekin izan al zenuen hasarrerik nota txarrak ateratzeagatik?**
Ez. Oso nota onak ateratzen nituen. Gurasoek beti lasaitzen ninduten.
- 3 **Gaztetan ere irakaslea izan nahi al zenuen?**
Ez neukan batere argi, Batxilergoa bukatutakoan erabaki nuen.
- 4 **Zer eduki behar du irakasle on batek?**
Pazientzia handia eta entzuten jakin behar du.
- 5 **Zaila al da ikasleei kalabazak jartzea?**
Saiatzen den ikasleari kalabazak jartzea zaila da, baina aukia berotze ra etortzen diren ikasleei jartzea ez da hain zaila.
- 6 **Udan ikastea tokatzen zaion ikasleak ez al dizu penarik ematen?**
Bai, batez ere Unibertsitatean dauden gazteek ematen didate pena.
- 7 **Nola esaten zaie gurasoei beren semeak errepikatu egin behar duela?**
Zaila da. Hitz politak erabili behar dira, eta azkenean ulertzen dute.
Norberak badaki etxean zer daukan.
- 8 **Irakaslea ez bazina, zer izatea nahiko zenuke?**
Idazkaritza ikasi nuen lehenago, eta bulego batean administrari lanetan arituko nintzateke gustura.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



NATALIA GIL **ama**



ELENA FERREIRO **alaba**

GALDERAK

- | | | |
|------------------------------------|---|---|
| 1. Nora joango zinateke oporetan? | 1. Berdin zait nora, baina hondartzara. | 1. Engidanozera, oso ondo pasatzen dut. |
| 2. Hondartza ala mendia? | 2. Hondartza dut nahiago. | 2. Hondartza, mendia ez zait gustatzen. |
| 3. Egarria kentzeko edari onena? | 3. Ura. | 3. Ura. |
| 4. Gorroto duzun janari bat? | 4. Arraina ez zait asko gustatzen. | 4. Azalorea, ez zait batere gustatzen. |
| 5. Asteko egunik gustukoena? | 5. Zapatua, presarik gabe ibiltzeko. | 5. Asteazkena, arratsaldea jai dudalako. |
| 6. Telebista ala irratia? | 6. Ez dut asko ikusten, baina telebista. | 6. Telebista, "Los Serrano" dut gustukoena. |
| 7. Noiz egin duzu negar azkenekoz? | 7. Alabarekin haserretzean tristetzen naiz. | 7. Atzo, amarekin haserretu nintzelako. |
| 8. Azkena ikusi duzun filmea? | 8. "Los chicos del coro". | 8. "Spiderman 2". |

TXIKI inkesta

Zertarako erabiltzen duzu sakeleko telefonoa?

Lorea Lozano
12 urte

Kalean nagoela, gurasoak non dauden ez dakidan beraien deitu edo mezuak bidaltzeko.



Izaskun De Marcos
12 urte

Deitzeko, mezuak bidaltzeko eta jolasteko, baina 12 urteko umeez ez dugu sakeleko telefonorik behar.



Jabier Sarasua
12 urte

Lagunei deitzeko gehienbat, eta batzutan gurasoei etxera beranduago iritsiko naizela abisatzeko.



Asier Gurrutxaga
12 urte

Lagunekin komunikatzeko, eta etxetik kanpo nagoenean gurasoei deitzeko. Ez dut asko erabiltzen, asko gastatzen da.



LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako
'GIPUZKOA ZURE ESKU'
mahai jokoa + CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Sara Beristain**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo
posta elektronikoz bidali:
barren@elgoibarkoizarra.com



Inkesta

Hiru hilabeteko epean dibortziatzeko aukera izango da uztailetik aurrera.

Dibortzioaren lege berriarekin, banaketak ugaritu egingo al dira?

PILAR CEPILLO
Etxekoandrea
53 urte



“Baietz uste dut. Orain jende asko ez da banatzen papeleo asko egin behar delako, eta tramitea oso luzea delako. Banatzeko erabakia askoz errazago hartuko da.”

ELENA ETXANIZ
Etxekoandrea
58 urte



“Bai, lege honekin dudak dauden askok aurrera egingo dute, nahiz eta gero, beharbada damutu. Krisi une bat jasaten dutenak errazago banatuko dira.”

JUANTXO PEREZ
Langabetua
34 urte



“Ez dut uste, banaketak pertsonalitate arazoengatik sortzen dira, ez da denbora kontua. Lege hau tontokeria bat da, nahi duenak orain ere banatzeko aukera dauka.”

KAREN BASTARRIKA
Ikaslea
18 urte



“Ez. Nik uste dut jendea berdin-berdin banatuko dela, baina tramitea errazagoa izango dela. Orain ere jendea banatzen da, ez diote denborari begiratzen.”

[BAI ala EZ?]

Sakeleko telefonoa beti gainean eramaten al duzu?

BAI %48

EZ %52

“Bai eta nonbaiten ahazten badut zerbait falta zaidala iruditzen zait. Ai ene... eta orain dela 5 urte nik ez nuela inoiz (!!!) mobilik edukiko esaten nuen... Zelan aldatzen diren beharrak!”

“Ez, erabiltzen dot baina ez dut beti gainean eramaten. Premia dagoenean ondoan izateak ematen dau poztua. Praktikua da, bai, baina ez neuke haren menpe bizi nahi.”

Datorren asterako... **EAEko 6 hondartzek daukate kalitatea bermatzen duen bandera urdina. Gure inguruko hondartzen egoera ona dela uste al duzu?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7744 zenbakira SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean bi pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala hotelean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com

"Herri bat mendian gora"



*Aspaldikoa da elgoibartar-
ron mendizaletasuna. 1927an
Elgoibarko Mendi Itzulia anto-
latu zenetik, etengabekoa izan
da herritarren eta mendiaren
arteko harremana. 1943an
sortu zen Morkaiko Mendizale
Elkartea, eta, neurri batean, be-
rau izan da elgoibartarrok
mendira begira jartzeko ardu-
ra nagusia izan duena.*

*Baina mendizaletasuna ez
da kirola bakarrik izan. Men-
diak eta mendizaletasunak gu-
re gizarteko beste atal batzuek
ere ukitu ditu. Hala, mendia eta
euskarak urteetan zehar izan
duten harremana eta lotura
azpimarratu behar dugu. Eus-
karak unerik txarrenak bizi izan
zituenean, besteak beste, gure
mendiak izan ziren gure hiz-
kuntzaren gordeleku. Euskaldu-
nek mendietako gaintara jo-
ten zuten kalean egin ezin zu-
tena egitera: Euskaraz berba
egitera.*

*Hau denagatik, Morkaiko
Mendizale Elkarteak eta Elgoi-
barko Izarra Kultur Elkarteak
"Herri bat mendian gora" pro-
grama prestatu dugu. Gehiga-
rri berezi honetan, programak
eman duenaren laburpen txiki
bat, eta mendiak eta gure he-
rriak izan duten loturaren erre-
paso txiki bat azaltzen ahale-
gindu gara. Ea guk erakutsi
nahi dizueguna ikusten du-
zuen.*



JAKITEKOAK

- 1927an antolatu zen estraineko Elgoibarko Mendi Itzulia koadrila arteko apustu batengatik izan zen. 12 orduan Elgoibarko mendiz itzulia eman ala ez zen apustua. Eta bai eman ere.
- 1943an Morkaiko Mendizale Elkarteak sortu zuten 18 lagunek. Hasieran 100 bazkide baino ez ziren, eta hilean pezeta bat pagatzen zuten kuota modura.
- Kanpoko mendietarako lehen irteera 1956an antolatu zen. Europako Mendietara izan zen eta 28 lagun animatu ziren. Pirineotara, berriz, 59an antolatu zen lehen irteera eta 22 lagun joan ziren.
- Sasoi hartan Gobernadore Zibilarren baimena behar izaten zen probintziatik kanpoko mendietara irteerak antolatzeko. Mendira abantatu aurretik Guardia Zibilar baimen-paper guztiak erakutsi behar zitzaizkion. Eta, batzuetan, mendi tontorretan ere egoten ziren paisanoz jantzitako guardia zibilak.
- Mendi irteerak ezik, turismoarekin lotutako irteerak ere antolatzen zituen Morkaiko. Hala, 72an 30 lagun Suitzara joan ziren. Hauetatik zapik, hiru eguneko ahaleginaren ondoren, Mont Blanc mendi ezaguna hankapean hartzea lortu zuten.
- Mendia abertzaletasunaren eta gure hizkuntzaren aterpe izan zen sasoi batean. Lehen ikurrinak ere mendietan azaldu ziren, batzuek ausardia larrutik ordaindu bazuten ere.

Antolatzaileak:



**Morkaiko
Mendizale Elkartea**



**Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea**

Gehigarriaren ardura: **Imanol Larrañaga**
Erretiratuak: **Morkaiko Mendizale
Elkartea**
Maketazio lanak: **Jaione Unanue**



1924an sortu zen Euskal Herriko Mendizale Elkartea; ordurako zabalitzen hasita zegoen Elgoibarren mendizaletasuna.



1943an mendi elkartea sortzea erabaki zuten orduko mendizaleek. Eup! izena jarri nahi zioten, baina ez zuten lortu "izen subertsiboa" zelako.



Sasoi hartan mendira joatea abentura bat izaten zen. Belaguara joateko, adibidez, egun osoa behar izaten zuten.



Mendiko arropak eta materiala asko aldatu dira. Pirineoetara joateko granpoiak, adibidez, beraiek egiten zituzten ahal zuten moduan.



Mendian min hartuz gero ez zegoen ospitalera eramango zintuen helikopterorik. Lepoan hartu eta segi aurrera.



Baina ez pentsa goserik pasatzen zutenik. Gaur egungo barrita energetikoen partez, zopak, paellak eta antzerakoak prestatu eta jaten zituzten.



1947an inauguratu zuten Hiru-lturri iturria. San Pedroko eta San Migeleko baseritarrek lagunduta, auzolanean jaso zuten.



18 lagunek sortu zuten Morkaiko 1943an, baina harezkero makina bat lagun pasa da Errosario kaleko lokaletik.



Finalista Eguna 1957an hasi ziren antolatzen San Pedron. Mezak, medalla banaketak eta bazkariak leku berezia izan dute egun honetan.



Hasieran Finalista Eguneko protagonistak ehun mendi egidako mendizaleak ziren; baina, gerora, nagusiek protagonismoa galdu eta umeek hartu zuten.



60ko hamarkadaren lehen urteetan hasi ziren orduko mendizale euskaltzaleak umeekin mendira irteten.



Ez dago urrutira joan beharrik mendiaz eta naturaz disfrutatzeko. San Rokera igota ere primeran pasa daiteke.

"Herri bat mendian gora"

Maiatzaren hamabian hasi eta ekainaren bostean amaitu zen "Herri bat mendian gora" programa. Denetik izan dugu hilabete honetan, eta, nahi baduzue, programan zehar ikusi, entzun eta biziakoaren laburpen bat egingo dugu.



ANTXON ITURRIZAREN HITZALDIA

Maiatzak 12

Antxon Iturriza kazetari eta mendizaleak euskal mendizaletasunaren historiaren errepaso bat egin zigan. Besteak beste, Euskal Herria beti mendiari lotuta egon dela esan zigan.



ELGOIBARKO MENDI ITZULIA

Maiatzak 15

137 lagun inguru animatu ziren Elgoibarri mendiz mendi buelta ematera. Eguraldi ona eta giro hobea izan ziren.



JON ARRETXEREN PROIEKZIOA

Maiatzak 19

Jon Arretxe idazle eta bidaiariak "Mundua zazpi koloretan" erakutsi zigan. Erretratuak eta literatura izan genituen bidelagun.



ELGOIBARTIK DURANGORA. IBILALDIA

Maiatzak 29

Zortzi lagun baino ez ziren animatu Elgoibartik Durangora arteko ibilaldira. Itxura denez, eguraldi txarraren iragarpenak jendea atzera bota zuen.



MAHAINGURUA Ekainak 2

Pako Iriondo, Patxi Lizarralde eta Felix Etxeberria Elgoibarko mendizaletasunaren gainean. Mendizaletasunaren historia, orduko mendi irteeretz, eta mendiak eta euskarak izan duten loturaz jardun zuten.



FINALISTA EGUNA

Ekainak 4

Egun polita izan zen aurtengoa ere. 70 domina banatu ziren, eta bazkaltzera 38 nagusi eta 35 ume animatu ziren.

JUAN SAN MARTIN: MENDIZALEON ETA EUSKALTZALEON GIDARI



Juan San Martín izan zen Morkaikok Pirineotara antolatu zuen estreinako irteerako gidaria. Erretratuan Pako Iriondoren alboan ikus dezakegu 1956an ateratako erretratuan. Mendi asko pasa zituen Juan San Martín eibartarak gidari moduan. Baina bere gidari sena ez zen mendira bakarrik mugatu. Euskaltzaleontzat ere gidari edo bide erakusle izan da. Zoritxarrez, Juan San Martinek agur esan digu duela gutxi.

Gu guztion esker ona azaltzeko, Morkaikoren 50. urteurrenean San Martinek idatzitako lerro batzuk ekarri ditugu akordura:

"Morkaikorekin egin nituen irteerak atseginez gogoratzen ditut. Ez da gutxiagorako. Antolakuntza, ordena eta diziplina zerbait jartzeko Pako Iriondorekin kontatzen nuen; atzekaldean lagungarri jartzeko ez zitzaidan falta izaten pertsona egokirik; horietatik asko aipatuko nituzke baina hutsen bat edo beste ez egiteko hobe dut isilik utzi. Elgoibartarren umorea, mendizale talde haietan, beti ezin hobea izaten zen. Eta umorea lagun dela, aldatsak gutxiago dira. Denbora joanean, atseginez oroitzen ditut urte haiek, eta bizitza guztiako lagun onak lortu nituen".

Danel Mendibil, Mikel Arrieta eta Mikel Olaizola Eskolarteko bertso Txapelketa finalean



Errazu Bertso Eskolako Danel Mendibil, Mikel Arrieta eta Mikel Olaizola Gipuzkoako Eskolarteko bertso finalera iritsi ziren, bat-bateko bertsolaritza alorrean. Arrasateko kanporaketan lortu zuten finalerako txartela. Aipatu beharra dago, bestalde, aurtengoan 25 urte bete dituela

txapelketa honek. Donostiako Kursaal aretoan jokatu zen finala joan zen ekainaren 2an, eta elgoibartarrak fin aritu ziren arren, saria Goierrri aldera joan zen. Hala ere, Mikel Olaizolak aipamen berezia jaso zuen, eta datorren ekainaren 13an Altsasun jokatu den Euskal Herriko Txapelketako finalean hartuko du parte.

[BIXITAN]

Inglesak BARRENen

Elgoibar Ikastolakoekin egin dute elkartrukea aurtengoan ere Liverpooleko ikasleek. Herriko beste hainbat toki ikusi ostean, BARRENen izan genituen bisitan, eta astero-astero gure aldizkaria nola egiten dugun azaldu genien. Bukarera beren zalantza eta galderak erantzun eta argazkia atera genien



IMHko 6. promozioako Ingeniariek ikasketa amaierako diplomak jaso zituzten

IMKko Ingeniarien 6. promozioak 2004. urtean bukatu zituen ikasketak, eta joan zen maiatzaren 19an jaso zituzten diploma eta ziurtagiriak. Aipatu beharra dago bestalde, ikasle hauen %94a lanean dagoela dagoeneko, eta gainera, %35ak zuzendaritza karguak dauzkatela enpresa desberdinetan.

[IRTEERAK]



Pilar Ikastetxeoko Saloun izan ziren ikasbidaian

Pilar Ikastetxeoko DBH 2. mailakoak Kataluinako kostaldera egin zuten ikasbidaia. Saloun pasatu zituzten lau egun, eta besteak beste, Port Aventura parkera joan eta Bartzelonan izan ziren. Etxera bueltan Zaragoza bisitatu zuten, eta esan digutenez, beriz bueltatzeko gogoarekin itzuli dira.

Herri Eskolakoek Plazaratze Eguna ospatu zuten

Joan zen ekainaren 4an, Plazaratze Eguna ospatu zuten Herri Eskolakoek Plaza Handian. Atxutxiamaiak Aisialdi Taldekoen eskutik, ikasleek tailer desberdinetan parte hartzeko aukera izan zuten, besteak beste, aurpegiak margotu eta birziklapen tailerrak izan zituzten. Guraso Taldeak taberna jarri zuen, eta jende asko hurbildu zen bertara. Giro oso onean ospatu zuten eguna.



GAZTIA NAIZ

elkarrizketa...

ATERKINGS



ATERKINGS TALDEKO PARTAIDEAK DIRA ALBERTO GONZALEZ ETA MARTXELO MENDIZABAL. LEHENENGOAK HAMMOND ORGANOA ETA GITARRA ELEKTRIKOA JOTZEN DITU, BIGARRENAK BATERIA. GAINONTZEKO PARTAIDEAK MIKEL TXURRUKA (GITARRA ELEKTRIKOA), ETXEBE (BAXUA) ETA GOIKO (AHOTSA) MARKINARRAK DIRA. ROCK 'N ROLL DISKOA KALERATU BERRI DUTE, ETA KRITIKA OSO ONAK JASO DITU. GU ALBERTOREKIN IZAN GARA ETA BERAK KONTATU DIZKIGUNAK JASO DITUGU ORRIOTAN.

Alberto Gonzalez

“Musika dedikazio handia eskatzen duen hobbya da guretzat”

Noiz sortu zenuten taldea?

2000. urtean elkartu ginen lehendabiziz. Kontzertuak ikustera joaten ginenean, ikuslego murrizta osatzen genuen, elkar ezagutu eta Markinara joaten hasi ginen jotzera. Hasieran Wailers, Little Richard, Chuck Berry, MC5, Them



edo Stooges-en bertsioak egiten genituen eta gerora gure kantu propioez osaturiko erreperorioa landu dugu. Gure arteko erlazioa musika giroan lortu da. Hala ere, lagunak gara lehendabizi, musikazaleak gero eta azkenik, musika taldea.

Nondik dator Aterkings izena?

Behin lokalean geundela, markinar batek aterkia ingelesez nola esango lukeen galdetzean, aterkings erantzun zioten. Asko gustatu zitzaigun, eta aldi berean Chesterfield Kings-i omenaldi txiki bat egiteko aukera ematen digu!

Zein musika estilo lantzen duzue?

Antzinako rock and rolla da, baina askoz azkarragoa.

Zer aurkitu daiteke Rock 'N Roll zuen estreinako diskoan?

Rock'n rolla da nagusi. 50-60. hamarkadetako rock musika. Egun egiten den tendentzietatik urrun gaude. 16 kantu sartu ditugu diskoan eta haven artean bertsio bakarra dago, "Money", bere garaian Beatles-ek ospetsu

egin zuena.

Gustura gelditu zarete diskoarekin?

Bai. Harrera oso ona izan du, eta kritika oso onak jaso ditugu Euskal Herrian eta baita hemendik kanpo ere. Urdulizko Tio Pete estudioan grabatu genuen 9 egunetan. Oso ondo dago estudioa eta primeran egokitu da gure beharretara.

Zein hizkuntzatan abesten duzue? Euskara da nagusi, gure arteko harremana euskaraz delako, baina ingelesera eta gaztelarrera ere jotzen dugu, gustatzen zaizkigun musikak hizkuntza hauetan entzuten ditugulako.

Kontzertuak Euskal Herriatik kanpora ere ematen dituzue, ezta?

Bai. Estatu mailan, Madril eta Asturias aldean egon gara behin baino gehiagotan. Atzerritik ere deitu izan gaituzte, baina kanpora joateak denbora asko kentzen du. Euskal Herriatik kanpora iritzea astuna izan daiteke.

Publikoak nola erantzuten du zuen kontzertuetan?

Goikok asko transmititzen du eta ikuslegoarekin erraz komunikatzen da. Freskotasuna, indarra eta jai giroa dira nagusi. Hori esaten dute behintzat!

BARREN



Zer duzue nahiago, Euskal Herrian jotzea ala kanpoan?

Zalego fijo bat badaukagu Euskal Herriatik kanpora. Bilbon jo izan dugunean Galizia eta Asturiasetik etorri izan da jendea eta Madrilan jo izan dugunean ere, harrera ona izan dugu. Bestalde, Internet bidez atzerriko taldeak ere jarri izan dira gurekin harremanetan. Jende desberdinaren lagun egiten saiatzen gara, azken finean musika lagatzen dugun egunean adiskideak bakarrik geratuko zaizkigulako.

Noizko kontzertu bat Elgoibarren?

San Bartolome jaietan jotzeko proposamen bat daukagu baina data horietan zenbait kontzertu daukagu, oporak. Oraindik ez dugu erabaki.

Zuen herrian jotzeak urduritasun gehiago ematen al dizue?

Ez urduritasunik, eta ez lotsarik.

Hamar urte baino gehiago dira dagoeneko musika jotzen hasi ginela, eta eroso sentitzen gara taula ginean.

Aterkings taldea osatu aurretik, beste talde batzutan ere aritu zarete, ezta?

Bai. 6nemen9 taldean urte askotan jo genuen elkarrekin. Bestalde, ni Uler600 eta zinea eta poesia ikuskizunentzako musika egiten aritu izan naiz. Martxelo, berriz, 6nemen9 taldeaz gain, Eibarko Raw Garlic eta Zarautzko Betiko Kontuak taldeetan aritu izan da.

Musika lana ala hobby bat da zuentzat?

Musika hobby bat da guretzat,

disfrutatzea da helburua. Beti izan da horrela, baina egia esanda, dedikazio handia eskatzen du.

Euskal Herrian Rock N' Rollak ematen al du dirurik?

Guk orain katxe majoa daukagu, baina ez du dirurik ematen musikaz bizitzeko. Gainera garai batean egon zen musika giroa ez dago egun. Gero eta kontzertu gutxiago dago. Bertatik bizi dena gero eta okerrago bizi dela esaten du.



NATHALIA MELLADO KANTARIA

«Adinarekin, errealitateak ametsak jaten ditu»



Nathalia Mellado izena musikarekin lotzen dugu. Koplarekin. Madrilen bizi den elgoibartar honek Herriko Antzokian eskainiko du gaur bere azken ikuskizuna. Estreinakoz, Natalia 4 musikarekin izango da eskenatokian eta, esan digunez, amets bat beteko du.

🦋 **Nolako da zure egun bat?**

Musika eta ahotsa lantzeko klaseak, sabeleko dantza ikastaroa, grabazioak...

🦋 **Zer ari zara grabatzen?**

Ekainaren 10ean Elgoibarko Herriko antzokian izango naiz nire taldearekin eta prestatzen ari gara. Maketa antzeko bat da promoziorako. Beste herritan ere aurkeztu nahi dut nire ikuskizuna.

🦋 **Zer ikusiko dugu emanaldian?**

Dezente aldatu naiz Madrilera joan nintzenetik. Ez da gauza bera 20 urte izatea edo 29. Estiloan bilakaera bat egon da, baita janzkeran ere... Baina, azken batean, betiko Nathalia naiz eta ezagutzen nautenek hori topatuko dute.

🦋 **Estreinakoz, zu eta musikariak.**

Bai, hau bai dela amets bat errealitate bihurtzea. Orain arte grabatutako musikarekin abestu izan dut eta orain nirekin lau musikari izango dira eskenatokian, pianoa, kontrabaxua, bateria eta perkusioa. Zuzeneko musika eskainiko dugu eta hori oso aberatsa da, hori bai dela benetako musika.

🦋 **Zer entzungo dugu?**

Gehienak abesti ezagunak dira baina esaterako rantxera bat tango erara, edo abesti normal bat buleria ukituarekin... Betiko abestiak baina nire estiloarekin, azken batean. Nire helburua da ni entzuten ari direnean ez etortzea beste abeslaririk burura.

🦋 **Zergatik joan zinen Madrilera?**

20 urterekin ostiralero Madrilera joaten nintzen klaseetara. Han sortu zen "La primera noche" saioan lan egiteko

aukera. Orduan erabaki nuen joatea. Aukera gehiago dago musikan lan egiteko.

🦋 **Gaur egun Rafaelekin ari zara koruak egiten.**

Bai. Madrilen "Amigos en la noche" saioan parte hartu nuen Isabel Pantoja eta Paradarekin. Poliki poliki kontaktuak egin eta Rafaelekin lan egitea eskaini zidaten. Eta gaur arte. Rafaelekin birak egiten ditugu, bera nora, gu hara.

🦋 **Manolo Escobarekin ere aritu izan zara. Ez al duzu inoiz pentsatu beste estilo batean aritzea?**

Egia esan, ez. Estilo aldaketa baino nahiago nuke nire kasa aritzea, neure diskoa atera eta Nathalia bezala agertzea antzokietan.

🦋 **OT hasiko da berriz. Nola ikusten duzu fenomeno hori?**

Birritan aurkeztu nintzen, hasieran, baina gaur egun ez nau erakartzen. Iruditzen zait produktu bat bilatzen dutela, artifiziala eta komertziala, eta jendea guztiz manipulatzeko dutela. Gaur egun 20 urte izango banitu seguruenik OT, GH eta antzeko reality guztietan ibiliko nintzatekeela baina orain ez.

🦋 **Adinarekin ilusioak galdu egiten al dira?**

Galdu ez baina askoz errealistagoak zara. Gauza asko ikusi ditut, onak eta ez hain onak. Errealitateak ametsak jaten ditu. Dena dela, lortu dut nahi nuena, musikatik bizitzea. Azken batean hori da garrantzitsuen, egiten duzunarekin gustura egotea.

«Orain arte ez bezala, zuzeneko musikoekin arituko naiz gaur»

KURTSO BUKAERAKO JAIALDIA

Triska Dantza Taldearen emanaldia

Triska Dantza Taldeak ekainaren 18an, ospatuko du kurtsu bukaerako jaialdia Olaizaga Kiroldegian. Elgoibarren ez ezik, Eibar, Deba eta Mendaron ere eskaintzen ditu klaseak Josu Mujikak zuzentzen duen taldeak eta Mendaron asteburu honetan, ekainaren 11n, ospatuko dute jaialdia. Elgoibarren 50 ikasle ditu Triskak, 4 eta 14 urte bitartekoak, baina lehen aipaturiko herrietako ikasleak gehituko zaizkie Elgoibarko jaialdian. Hainbat estilotako koreografiak ikusi ahal izango dira: klasikoak, gaurkoak, jazz-a, e.a. Sarrerak aurrez eros daitezke Pitxintxun.



Tarazonara irteera kulturala Haizearen eskutik

Haizea Emakume Taldeak Tarazonara (Zaragoza) irteera kulturala antolatu du. Ekainaren 19an, domekan, izango da irteera. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko Pitxintxura jo beharko da.

Bestalde, bideo-forum berri bat antolatu du Haizeak ekainaren 17rako (barixakua). "Cleopatra" filma ikusi ostean, Eskame Larrinaga psikologoak filmeak aztertzen dituen gaiak eztabaidatuko ditu Kultur Etxera bertaraten direnekin batera.

Egur taileraren erakusketa

Egur Arte Tailerrak ikasleek bertan egindako lanekin osatutako erakusketa inauguratuko du ekainaren 17an, barixakuan. Lanak Kultur Etxean izango dira ikusgai ekainaren 30era bitartean.

Bitisa ordutegia: astegunetan 19:00etatik 21:00etara.

Jaiegunetakoa: 12:00etatik 14:00etara.

"Do" taldearen kontzertua gaur, Kultur Etxeko sotoan

Sinuosek antolatutako "Sotoko Hotsak" kontzertu zikloa iritsi da amaierara. Pop esperimentalak egiten duen "Do" taldeak agurtuko du kontzertu sorta, gaur, hilak 17, Kultur Etxeko sotoan (22:30). Joseba Irazoki Berako musikaria ezkututzen da

"Do" izkien atzean. Fenezs edo Mitchell Akiyama musikariengandik hurbil dago bere musika eta haiek bezala kitarra erabiltzen du soinu eta giro ezberdinak sortzeko. "Onddo" taldeko burua izateaz gain, proiektu ezberdinak ditu martxan.



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Karpo eta barneko estaliturak
Zaluen kokakadak
Lakaduz: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura omakorra

San Roke, 7 behean
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 modaleak
Tel. 943 740 578



I. URTEURRENA

SARAGUI

LENTZERIA ETA ETXEKO EHUNKIAK

%15eko deskontua artikulu guztietan

San Frantzisko, 44 · Tel.: 943 74 29 42



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta hanakako terapia)

PSIKOLOGIA

- HARREMAN ARAZOAK: bikotearekin, familiarekin edo kideekin
- LUMEN ETA NERABEEN ARAZOAK
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ESTRESA
- ELIKADURA ARAZOAK
- AUTOESTIMA

miriam majika 675 61 78 55 AURKIBAN EDREKOR
alinoa basurko 615 70 37 25 URTEARRA KALEA-1.

GIPUZKOAKO HIRU TXIRLO BOLO TXAPELKETA

San Migelen jokatu da azken jaurtialdia zapatu honetan

Zapatu honetan, ekainaren 11n, jokatu da Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketaren 10. eta azken jaurtialdia San Migelgo bolatokian (12:00). Urteroko ohiturari jarraituz jaurtialdien ostean bazkaria izango da Belaustegi jatetxean (14:30) eta bertan banatuko dira sari ezberdinak. Honez gain, Andresi Arantzetak eta Jose Mari Arillagak omenaldia jasoko dute. Bazkariara joateko honako telefonoetara deitu behar da (635 723 255 eta 605 720 441). Bederatzigarren jaurtialdia San Pedroko bolatokian ospatu zen joan zen zapatuan eta sanmigeldar bat izan zen irabazlea, Xabier Loiola, hain zuzen ere. 7 txirlo bota zituen. Angel Ibarluzea auzokidea 4. postuan sailkatu zen 5 txirloekin. Guztira 57 bolarik parte hartu zuten.



Uda 2005 Kirol Kanpaina

Elgoibarko Udako Kirol Patronatuak jakinarazten du Uda 2005 Kirol Kanpainan parte hartzeko izena emateko epea irekita dagoela ekainaren 17ra arte.

Tenisa (4 urtetik aurrera), igeriketa (2 urtetik aurrera), umeentzako aerobika, eskalada eta arku tiraketa dira aurtengo eskaintzak.

Interesatuak Olaizaga kiroldegira jo beharko dute.

Txirindulari afizionatuen azken arrakastak

Ramon Javier Garcia, Azysa taldeko txirindulari afizionatuak 3. postua eskuratu zuen erlojuz kontrako Gipuzkoako Elite Txapelketan. Legorretan hasi eta bukatzen zen 29 kilometroko ibilbidea 35'09-ko denboran burutu zuen elgoibartarrak 44 kilometro orduko batezbesteko abiadura.



Asier Maeztuk irabazi zuen proba. Maeztuk Atenaseko joko olimpiarretan brontzezko domina irabazi zuen jezaren olimpiako proban. Debabarrena taldeko Iñigo Lariz elgoibartarra 9. postuan sailkatu zen irabazlearengandik 2'19ra. 23 urtez azpikoetan 5. postuan sailkatu zen. Ez dira aurrean ibili diren herritar bakarrak izan. Arkaitz Mujikak 3. postuan zeharkatu zuen helmuga Sabiñanigoko Sarian, Elite mailako afizionatuentzako izen handiko lasterketan. Azkenik, joan zen asteburuan Salnes-eko Itzulia (Pontevedra) parte hartu zuten Ramonek eta Arkaitzek eta sailkapen nagusiko 10. postuan sailkatu zen Arkaitz.



1a 200 umek parte hartu zuten Igeriketa Egunean

Argazkian ageri diren haurrak elgoibartarrak dira, baina haur gehiago parte hartu zuten Olaizaga kiroldegiko igerilekuan ospatu zen Igeriketa Egunean. Zazpi eta hamar urte bitarteko ia 200 haurrek parte hartu zuten proba ezberdinetan.

MINTXETAKO IGERILEKUAK

Ekainaren 15ean hasiko da igerileku irekien denboraldia

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazi duenaren arabera ekainaren 15ean, eguaztenean, emango zaio hasiera Mintxetako Igerilekuen denboraldiari. Bazirudien aldagela berrien eraikuntza lanek igerilekuen irekiera atzeratuko zutela, baina garaiz hasiko da denboraldia. Joan zen urtean 30.876 erabiltzaile izan zituzten igerilekuek: ekainean 5.774, uztailaren 14.794, abuztuaren 8.122 eta irailean 2.186. Urtero legez, irailaren 15ean emango zaio bukaera denboraldiari. Igerilekuen ordutegia honakoa izango da: astelehenerdik domekara: 11:00etatik 20:00etara.



Sigmako Pilota Txapelketaren 25. urteurrena

Ekainaren 7an hasi zen Sigmako Pilota Txapelketa. Antolatzen hasi zireneko 25. urteurrena ospatuko dute aurten. Ohi dutenez, uztailaren 25ean, Santiago Egunean, jokatuko dira finalak eta zerbait berezia prestatzeko asmoa dute antolatzaileek. Bitartean, martitzenetan eta eguenetan jokatuco dira partidak Sigmako frontoian. 6 bikotek eman dute izena 1. mailan eta 5ek 2. mailan. Pilotarekin jarraituz, Lagunak Pilota Txapelketa ere abian da. Pilotari gaztetxoek, gaur, hilak 10, jokatuco dituzte final aurrekoak 18:00etatik aurrera Plaza Handian.



Morkaiko Mendizale Elkarteak web orria jarri du martxan



Elkartearen inguruko albiste, ekintza (Elgoibarko Itzulia, Karakatera Igoera, Argazki Lehiaketa...) eta irteeren berri emango duen web orria abiarazi du Morkaikok www.morkaiko.net helbidean. Bazkideek eta mendizaleek, orokorrean, mendiaren inguruko edozein informazio eskuratzeko tresna izateko helburuarekin sortu dute. Mendizaleek beraien esperientziak elkarbanatzeko foro bat eta irteera guztietako argazkiak ere aurki daitezke bertan. Antton Alberdi gazte elgoibartarrak diseinatu eta EFM-k diruz lagundu du.

Ason-eko mendiak eta rafting-a

Bestalde, Morkaikoren hurrengo irteerak ur-kirolak eta mendia uztartuko ditu ekainaren 18an eta 19an. Kantabria aldera joango dira oraingoan, Asoneko eskualdera, hain zuzen ere. Han, rafting-a edo erreka lasterren jaitsiera egingo dute Ebro ibaian, bere sorlekutik gertu. Bigarren egunean inguruko mendiak ezagutuko dituzte. Lekua mugatua denez, lehenbailehen izena ematea komeni da. Informazio gehiago www.morkaiko.net helbidean.

Igartuarentzat Idarraga Saria

Joseba Igartuak irabazi du Haundiko jokalaria erregularrenari Idarraga Kafeak 8. Saria. Igartuak 50 puntu eskuratu ditu, Navarrete eta Jagoba Arrasatek baino 2 gehiago. Jokalari beterranoak beste urtebetez, gutxienez, jarraitzeko asmoa duela ziurtatu zigen. Bestalde, asteburu honetan klubean lapurren bisita izan dutela aipatu zigen presidentek. Ordenagailu bat ostu dute Mintxetako bulegotik. Bestalde, ekainaren 17an, ospatuko da C.D. Elgoibarren Urteko Batzar Orokorra Kultur Etxean (19:00). Oraindik ez dago argi nork hartuko duen zuzendaritza.



OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

[LANA]

ESKAERA

- † Mutila eskaintzen da lan egiteko: gida baimena dut, urdaitegi-harakin ezagutza. ☎ **615 00 83 46**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarateak, portalak, tabernak, etxeak... ☎ **699 60 91 90**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarateak, portalak, tabernak, etxeak... ☎ **646 23 51 95**
- † Neska udan tabernan lan egin edo nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **636 91 65 56**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **600 28 27 93**
- † Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarateak, portalak, tabernak, etxeak... ☎ **686 57 82 28**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest: elkarateak, portalak, tabernak, etxeak... ☎ **639 88 20 04**
- † Soldadore titulatu lanerako prest. ☎ **943 53 17 45**
- † Emakumea umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **699 28 40 64**

ESKAITZA

- † Pertsona bat behar dut udan etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. ☎ **687 114 707**

- † Euskaraz dakien emakume bat behar da edadeko pertsona bat zaintzeko, abuztuaren 15etik 31ra. ☎ **943-74 21 53**
- † Kotxeko kameta duen pertsona behar da banatzaile lanetarako. ☎ **636 99 69 90 (9:00-13:00/15:00-18:00)**
- † Sukaldari laguntzailea eta kamareroak behar dira. ☎ **943 12 12 62**
- † Debako Kresala Hotel-Jatetxeak terrazarako kamareroak behar ditu udarako. ☎ **943 60 80 52 (Axun)**
- † Asteburuetan gasolindegian lan egiteko pertsona behar da, uztaile, abuztua eta irailerako. ☎ **943 74 02 41**
- † Ileapaintzailea behar da egun erdiz lan egiteko. ☎ **943 74 18 64**

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Pisua salgai Pedro Muguruzan. Egoera onean, bizitzera sartzeko moduan. 90m². 3 logela, egongela, sukaldea, komuna ganbara. ☎ **943 74 33 68**
- † Etxea salgai Marbellan. Atiko duplexa, amueblatuta, garajearekin. 2 gela, binugela eta komuna, egongela, sukaldea. 14m²ko terraza, igerilekua, eta lorategi komunitarioa. Hondartzatik gertu. ☎ **699 17 98 72**
- † Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m². Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukalea, lehortegea eta garajea. ☎ **687 23 58 39**
- † Etxe berriua salgai Sorluzen. Komunak eta sukalea amueblatuta. Garajea, entreplanta eta txokoa. ☎ **615 77 99 20**
- † Etxea salgai Mendaron, Herriko Enparantzan. 3 logela, egongela, sukalde-jangela, komuna, bainugela, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua eta egoera ezin hobean. ☎ **618 25 93 43/943 03 35 63**
- † Etxea salgai Urasandin. ☎ **666 718 263 (Igor)**
- † Pisua salgai Pedro Muguruzan. Eguzkitsua eta bistekin. ☎ **617 979860 (15:30etik aurrera)**
- † Etxea salgai Mendaron. 77m² Bizitzera sartzeko moduan, dena kanpora, eguzkitsua eta ganbararekin. ☎ **659 71 57 22**
- † Etxea salgai, oso egoera onean. 3 logela eta terraza. ☎ **609 541 622**
- † Etxea salgai Pedro Muguruzan. Sukaldea, komuna, egongela, 2 logela, balkoia, terraza, trasteroa. 156.500 euro. ☎ **600 300 682**
- † Pisua salgai Artxen (Inizez de Karkizano). Berriua, altzariekin, dena kanpora, ganbararekin. ☎ **627941261**

ALOKAIRUA

- † Pisua alokatzen da Salamancan ikasleentzat. ☎ **943 74 29 31**
- † Pisukidea behar da etxea osatzeko. ☎ **615 76 55 15**
- † Apartamentua alokatzen da Mallorkan. ☎ **645 82 93 45 (Aitor)**
- † Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Zentroan. ☎ **650 55 70 77**
- † Etxe adosatua alokatzen da Alcoceberren (Castellon) ekaina, uztaile eta iraila. Igerilekua, hondartzatik 200 metrora. Gune oso lasaia. ☎ **680 18 39 07**
- † Pisua alokatzen da Torreveijan. Igerilekuarekin eta hondartzatik 600 metrora. ☎ **628 58 45 35**
- † Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo Eibarren. ☎ **690 701 118**

[BESTERIK]

- † Arrilaga kalean poltsa galdu nuen ume jantziekin. ☎ **943 74 14 52**

[PARTIKULARRAK]

- † 6 urteko umeari klase partikularrak emateko pertsona behar da. ☎ **615 78 71 18**

[GARAJEAK]

- † Garajea alokatzen da Pista Beltzean. Bi autorentzako, irekia. 60 euro. ☎ **699 81 25 66**
- † Garajea salgai Urasandin. ☎ **943 74 07 26 (21:00-22:00)**
- † Garaje itxia salgai Madalako etxe berrietan. 28m². ☎ **646 50 28 66**
- † Garaje itxia salgai Pista Beltzean. ☎ **943 74 27 78**
- † Trenbide kalean garaje itxia alokatzen da. Goiko solairuan. ☎ **943 74 01 77**

[SALEROSKETAK]

- † Boxer furgoneta salgai. Gora altxatzen den sabaia. 2 urte eta 5 hilabeterako garrantia, Ekonomikoa. ☎ **639 31 33 29 (Maite)**
- † Opel Vectra 1.8 16v. salgai. 8 urte, ITV 2007ra arte. 110.000km. 4.200 euro. ☎ **699 81 25 66**
- † Mexikar estiloko saloia salgai. Amairuak, mahaiak, taberna, bi sofa... ☎ **943 19 80 62**
- † Seat Leon Sport 110 cv. salgai. 4 urte, 100.000km. Salmenta premiazkoa, prezio oso onean. CD kargadore, klimatizadorea, 4 airbag, portaeskia... ☎ **645 007 465 (Inaki)**
- † KTM 450 SX motorra salgai. 2003. urtekoa. Gutxi erabilia, transmisio eta erubera berriak, argiarentzat iteera, extrak. 4.900 euro. ☎ **678 587 867**
- † KTM 250 EXC motorra salgai. 2002. urtekoa. krosseko eskapea eta depositoa. 2 urtetan 200km. 4.000 euro. ☎ **678 587 867**
- † Bi piragua salgai, erremuekin. Biak 500 eurotan. ☎ **676 33 87 43 (Inaki)**
- † Silver Cross haur aukia salgai. Berria. 200 euro. ☎ **943 74 01 94**

UDARAKO BEGIRALEAK BEHAR DIRA

Elgoibarko Izarrako ATXUTXIAMAIIKA aisialdi taldeak begiraleak behar ditu uztaileko.

Atxutxiamaika Aisialdi Taldea Ubitarte 4, Behea 20870 ELGOIBAR Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Aiora) aiora@elgoibarkoizarra.co

Elgoibarko Izarra Elkartearen 4 HILABETEKO AMATASUN-BAJA bete-tzeko

Eskatzen da:

- Euskara menperatzea.
- Kontabilitatea.
- Nominak eta zergak (BEZ, PFEZ, Gizarte Segurantzza).
- Internet eta informatika (konta-plus, excel, acces, ...)

Eskaintzen da:

- Egun osoko lan-kontratua lau hilabeterako.

Curriculumak jasotzeko azken eguna: ekainak 20 (Astelehena).

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte

Ubitarte 4, behea

20870 ELGOIBAR

E-posta: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

[ZORIONAK]



† **Belxi**, zure zortzigarren urtebetetze egunean, mila kilo zorion danon partez.



† Ongi etorri **Naroatxul**, Eta zorionak amatxori eta aita-xori!! Muxu potoloak Mallabiko tien partez!!



† Zorionak **Jon Mugerza** astelehenean 7 urte beteko dituzulako. Familiako eta bereziki Nora eta Mariaren partez.



† Zorionak **Antonia** ekainaren 13an urteak egingo dituzulako. Muxu handi bat familiako eta ondo pasa zure eguna!!!



† Zorionak **Asier** igandean 10 urte beteko dituzulako. Familiako eta bereziki, Nekaneren partez.



† Zorionak **Maialen** gaur 2 urteko bete dituzulako. Etxeko partez muxu handi bat.



† Zorionak **Miren** asteartean 8 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez, eta oso ondo pasa eguna.



† Zorionak **begi urdin!** Zer pentsatzen zendun ahaztuta geundela? Zorion potoloak etxeko partez.



† Zorionak **Aroa** bihar 3 urte egingo dituzulako. Gurasoen partez.



† Zorionak **Ptxilore!** Heldu da zure eguna. Ekainaren 14an 3 urte! Ondo pasa eta muxu pilo bat denon partez, bereziki, anaia Mikelen partez.



† Zorionak **Igor** hilaren 8an 3 urte egin zenituelako. Aita-xo eta amatxoren partez.



† Zorionak **Ibare** hilaren 14an 10 urte egingo dituzulako. Aita-xo, amatxo eta familiako partez.



† Zorionak **Elena!** Astelehenean 11 urte beteko dituzulako. Ondo pasa zure egunean. Etxeko guztien partez.



† Ondo bidaia? Orain buelta tokatzen da... la ez zai-zuen oso gogorra egiten. Gora ezkonberriak!!



† Zorionak **losu** eta **Leire** atzo 5 urte bete zenituztelako. Muxu bat familiako, eta bereziki, Mikel eta Juleneren partez.



† Zorionak **Julieta, Fabian eta Isabel.** Guraso eta aitona-amonen partez, muxu haundi bana.

[11 ZAPATUA]

11:00 GURASO EGUNA 2005

Egun guztian zehar:
Altxorraren bila, Olinpiadak, herri kirolak, tailerrak, haur jolasak "Errazu" bertso eskolaren saioa, musika, e.a.
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

12:00 SAN MIGELGO BOLO TXAPELKETA

Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketako azken jaurtialdia Aiastiako bolatokian
Ondoren bazkaria Belaustegi jatetxean

22:00 TRISKA DANTZA TALDEAREN KURTSO BUKAERAKO JAIALDIA

Mendaroko Goñati pilotalekuan
Antolatzailea: Triska dantza Taldea

[14 MARTITZENA]

19:00 SIGMAKO PILOTA TXAPELKETA

Sigmako frontoian
Xabier-Perea / Basueta Alzibar
Beraza-Ansola / Idueta-Loiola
Fernando-Osoro / Arruti-German

[16 EGUENA]

19:00 SIGMAKO PILOTA TXAPELKETA

Sigmako frontoian
Olaso-Egaña / Karmel-Iriondo
Ander-Gerrika / Xabier-Idueta

[17 BARIXAKUA]

19:00 C.D. ELGOIBARREN URTEKO BATZAR OROKORRA

Kultur Etxean

19:00 EGUR ARTE TAILERARRAREN ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Kultur Etxean
Ekainaren 30era arte
Antolatzailea: Egur Arte Tailerra

22:00 BIDEO-FORUM-A

Filmea: "Cleopatra"
Hizlaria:
Eskame Larrinaga
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

22:30 "DO" TALDEAREN KONTZERTUA

"Sotoko Hotsak"
Kultur Etxeko sotoan
Antolatzailea: Sinuose
Sarrera: 3 euro

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«La interprete»

11, zapatua: 19:30-22:15
12, domekia: 19:30-22:15
13, astelehena: 22:15
"La Señal 2 (The Ring)"
17, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Eye 2»

10, barixakua: 19:30-22:15
11, zapatua: 17:00-19:30-22:15
12, domekia: 17:00-19:30-22:15
13, astelehena: 19:30-22:15
14, martitzena: 19:30-22:15
15, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Asalto al distrito 13»

10, barixakua: 19:30-22:15
11, zapatua: 17:00-19:30-22:15
12, domekia: 17:00-19:30-22:15
13, astelehena: 19:30-22:15
14, martitzena: 19:30-22:15
15, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENeK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

SINOPSISIAK

«La interprete»



Zuzendaria: Sydney Pollack.
Antzezleak: Nicole Kidman, Sean Penn, Catherine Keener.

Silvia Broome (Nicole Kidman) ONUn lan egiten duen Afrikan jaiotako interpretea da. ONUko egoitzan dagoela, gutxi ezagutzen den hizkuntza afrikar batean hitz egiten ari diren bi pertsonen arteko elkarrizketa entzungo du, nahigabe. Afrikako estatuburu bat asesinatzeko asmotan dabilzala entzungo die eta une horretatik aurrera bere bizia arriskuan izango da. Tobin Keller (Sean Penn) agente federala arduratuko da Silvia babestez.

Atzera begira



1963 urtean ateratako erretratua ekarri digu Juanito Gorostizak. Argazkian ageri den koadrila honek futbol partidu bat antolatu zuen Alberto Ecenarro C.D. Elgoibarko presidente izandakoa omentzeko. Klubeko presidente oso ospetsua izan zen Ecenarro eta urte mordoxka egin zituen presidente karguan. Hartu eman handia eduki zuen Realeko agintariekin eta baita Gipuzkoa mailako arbitroekin ere. Argazkian agertzen direnen irriparrak adierazten duen moduan, gizon oso estimatua izan zen. Hiru haurrak izan ezik guztiak hilda daude. Ikus dezagun nortzuk diren Leruneko futbol zelai zaharrean ateratako argazkian ageri direnak.

Tente, ezkerretik eskumara: **Agustin Sagasta, Eulogio Oria, Jose Antonio Alberdi, Gregorio Arrese, Eugenio Mujika, Alberto Ecenarro, Carlos Arrese, Jose Maria Ribero (ospe handiko arbitroa) eta Jose Maria Mugerza.**

Behean, ezkerretik eskumara: **Ramon Maiztegi, Iñaki Ribero (podologoa), Mila Mugerza eta Jesus Uncilla.**

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

AZKEN ETXEBIZITZAK salgai

Residencial Mirador
Santa Klara



Neinor

NEINOR **Azkoitia**

Julio Urquijo Etorbidea, 10

20.720 AZKOITIA

☎ **943 852 411 - 943 317 511**

- 4 logelako duplexak behekalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.

**Belaustegi
Baserria**



JATETXEA



6. urteurrena

Menu berezia

Ekainaren 10etik 17ra arteko astean ospatzeko

Foie-moussea bere konpotarekin

Otarrainxkak plantxan

Txangurroz beteriko legatza eta txakolin saltsa

Ahate-konfita sagarrarekin



Trufa-moussea eta albarikokezko sorbetea



Edaria eta kafea 34 € (+bez)

(Asteburuan edaria ez dago barne)

Astean zehar

Sukaldari-buruaren menua 22 € (+bez)

(Edaria barne)

Ostiral gaueko menua 25 € (+bez)

(Edaria barne)



*Eskerrak
guztioi!*

San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02